

Arantxa Uribe

HIK HASI-KO KIDEA

Ikasi eta irabazi!

Frantziako eta Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako ikasleek *Lehen-tasuna bezkuntzari!* mezua zabaldu dute.

Izan ere, Xavier Darcos Hezkuntza ministro frantsesak ezarri nahi duen hezkuntza erreformak haien haserrea piztu du, eta inondik inora onartzeko prest ez daudela adierazi dute ozen.

Ikasle mugimendu horrek inoiz baino indar handiagoa izan du. Sekula baino antolatuagoak daude, gainera. Ordezkariek izendatu dituzte ikastetxeetan eta ikastetxe guztiak biltzen dituen koordinazio bilkuretan parte hartu dute, antolaketa horri esker lortu dute izandako indarra.

Ondoren, irakasleak gehitu zaizkie protestetara, eta baita gurasoak ere.

Horren aurrean, Darcosek erreforma atzeratuko duela iragarri du. Ikasleek, aldiz, argi dute helburua: erreforma bertan behera uztea eskatzen dute, eta ez dira konformatu urtebetez atzeratzeko ministroak egin duen eskaintzarekin. Nire hezitzaile bihotzak, itxaropenez eta harrotasunez jarraitu ditu haien ekimenak eta haien inguruko berriak.

Aspalditxotik entzuten ari gara ikasleek ez dutela inizatibarik agertzen, oso indibidualistak direla, ez dutela berean baizik pentsatzen, errazkerian ohituak daudela. Nago askotan, urte dugula, eta halaxe jokatzeko dugu, ikasleei dena iraka-



tsi behar diegula. Gaitasunetan hezi behar ditugula agindu digute, orain: pentsatzen eta ikasten, komunikatzen, elkarrekin bizitzen, norbera izaten, egiten eta ekiten irakatsi behar diegu, hartzaile hutsak bailiran.

Tematzen gara gure begietatik ikusten dugun mundua erakusten, eta ez dakit noraino ote garen kontziente mundu hori mundu posible guztien artean bat besterik ez dela.

Dena irakatsi diegulakoan gaude, eta, hara, guk irakatsitakoa baino gehiago ikasi dute. Irakasleak lo geneuzkalakoan, interesik gabe.

Irudimena erabiliz eta teknologia berriak baliatuz mugimendu zabal, indartsu eta eraginkorra antolatu dute. Eta ez daude, ez, dagoenarekin konformatzeko prest. Ezta lehen eskaintzarekin planto egiteko ere.

Georges Jacques Danton-ek esan zuen: “Après le pain, l’éducation est le premier besoin d’un peuple”. Ikasleek irakatsi digute bidea: antolatu, borrokatu, eta eutsi tinko helburua lortu arte.

Orain, gainerakoon, hezitzaileon, gurasoon eta herritarren txanda da. Gogaitu arte entzun dugu beste mundu bat posible dela, baina antolatuz eta borrokatuz besterik ez dugu lortuko, lortzekotan.

Ikasgai ederra eskaini digute ikasleek... ikasi eta irabazi! ■

«
Tematzen gara gure begietatik
ikusten dugun mundua erakusten,
eta ez dakit noraino ote garen
kontziente mundu hori mundu
posible guztien artean
bat besterik ez dela
»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Ofizioa da, inguruaren-gandik nabarmentzen duena. Oholtzalaria beti dabil, giristinoen Jesusek gurutzea nola ohol-tzaren zama garraiatuz jendartean. “Hi ez haiz modernizatzen” aurpegiratu zidan lehengoan eza-gun batek bere betazalak nire txapelera zuzenduz. Bere burua buelodun kapelaz estalita zeraman. “Hirea ere, ez duk bada oraingoa”. Izan ere, gure etxean bi belaunaldiz ezagutu dut txapela, eta neroni ere jokatura nago hamai-ka urte nituelarik futboleko txapela buruan nuela, Carlos Gomes atezainaren antzeratsu. Eta orduan ere, gure ostatura bermuta hartzera zetozen zenbait jaun burge-

Oholtzalaritza

sek gustuko prenda zuten bueloz-ko kapela. Gehiengoak, ardozaleak, txapela zerabilen. Geroztik, gaztetan, film beltzeko protagonisten burutan ikusi izan dut gehienbat. Eta nola ez, *Ukiezinak* telebistako seriean, zuri-beltzean Elliot Ness eta Al Capone tarteko. Hauek ez ditut inoiz ikusi gure etxeko txapelarekin. Beraz, langileak, arrantzaleak, laborariak ezin zitezkeen modernoak izan nire ezagunaren aburuz. Argi da horren ustean modernoa izateko aski dela horietako kapelaz burua estaltzea, honek buruari adimena eta sorkuntza ahalmena, berez ekarriko balio bezala. Oholtzalaritza ofizioa da, eta ofizio orotan legez, artistak aleka. ■